

# Beterri Km0

## Bertakoa kontsumitu, bertan ekoitzi dadin

Beterri-Buruntza eskualdeko sei udalek martxan jarri duten proiektua da Beterri Km0. Tokiko produktuen kontsumoa bultzatuz lehen sektorea indartzea eta ekoizle berriei aukerak zabaltzea dute helburu. Urtaro bakoitzean eskualdeko herri batean festa eguna antolatuko dute produktu jakin bat bultzatzeko. Negukoa abenduaren 1ean izanen da Astigarragan, arkumea protagonista hartuta.



**Garazi Zabaleta**

@tirikitran

ARGAZKIA: BETERRI KMO

Aurtengo maiatzean izan genuen lehenengoz Beterri Km0 estrategiaren berri, proiektuaren bultzatzaileek Hernanin egindako aurkezpenean. Hernani, Urnieta, Usurbil, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Andoainek osatzen duten Gipuzkoako eskualdean tokiko produktuen kontsumoari bultzada ematea da egitasmoaren lehen helburua. Baina, nola lortu hori? Galderari erantzunak bilatzeko elkarlanean hasi ziren Behemendi Landa Garapenerako Elkartea, Karabeleko etxaldea, Ximaupila elkartea eta Hiritik At eta Tapuntu Kooperatibak. Ta Puntu proiektuaren komunikazio alorraz arduratzen da eta Hiritik At kooperatibak zuzendaritza tekniko darama.

Andoni Egia Olaizola Beterri-Buruntza eskualdeko garapen teknikariak azaldu duenez, duela hiruzpalau urte abiatu zen proiektua: "Behemendi Elkaratek hipotesia egin zuen orduan: eskualdean agroekologian ziharduten geroz eta ekoizle gehiago zeuden eta aurrera begira produktuak merkaturatzeko arazoak sor zitezkeen". Ordura arte martxan zi-

tuzten merkaturatze bideak, saskien banaketa esaterako, mugak zituela ohartu ziren, eta aukera berrien bila hasi ziren.

### Marka bat baino askoz gehiago

Alde batetik, bertako produktuen identifikazioa errazten duen marka moduan uler daiteke Beterri Km0. "Marka bat sortu da izen batekin eta euskarri batzuekin. Pegatinak ditugu, esaterako, bertako produktuak dituzten dendak eta produktuak berak identifikatzeko", dio Mikel Olaiz Garmendia Ta Puntu kooperatibako kideak. Eskualdeko komertzioetan eta jatetxeetan tokiko produktuen eskaintza zabaltzea da proiektuaren asmoetako bat. Horretarako eskualdeko ekoizleen katalogoa sortu dute, prezioak eta informazioa banatzaileen esku jarri eta tokiko produktuak eskuratzea errazteko.

Dena den, marka hutsetik askoz harago doan egitasmoa da Beterri Km0. Tokiko produktuen banatze sistemaren inguruan hausnartu nahi izan dute bultzatzaileek. Dendez eta jatetxez gain, non gehiago eskaini daitezke bertako produktuak?



Identifikatze lan horretan, aukera on bat aurkitu dute: jantoki kolektiboak.

### Jantoki publikoetan, bertako produktuak

"Bertako produktuen kontsumoa sustatu nahi badugu, eta administrazio publikoak aitzindari eta eredu izan behar badu, bada, goazen administrazio publikotik bertako produktuen kontsumoa bideratzera". Ideia horri tira eginez, jantokiak zituzten eskualdeko gune publikoekin lizitazioak aztertzeari ekin zioten: "Lizitazioekin jantoki publikoak enpresa bati esleitzen zaizkio, baina hor badago klausula ambientalak jartzerik", ohartarazi du Egiak. Epe laburrean bukatzen ziren lizitazioei klausula ambientalak ezarri eta jantoki horietan eskaintzen diren produktuak 25 kilometroren bueltan ekoiztuak izateko baldintza ezarri dute.

Oraingoz, Hernaniko zaharren egoitzako, polikiroldegiko eta eguneko zentroko jantokietan daude martxan bertako produktuez osatutako menuak. "Hernaniko zahar egoitzan, adibidez, egunean 200



*Koldo Huegun Zapirain, oilasko ekoizlea:  
“Elikadura, hori bai dela ekintza politikoa. Euskal Herrian kontsumitzen dugunetik %5 inguru soilik da bertan ekoitzia, hortxe dago koska”.*

rrengo hilabeteetan: ekoizpenaren jasangarritasunari lotutakoak zenbait –nekazaritza organikoa, bio-ongarriak...– eta enpresaritzari eta marketinari lotuak beste batzuk, ekonomia sozial eta eraldatzailearen baitan proiektuak bideragarri izan daitezten.

Proiektua laburbilduz: “Bertako produktuen kontsumoa sustatzea, ekoizpena kontsumo horretara bideratzea eta aldi berean ekoizpena zabaltzea hortik lanpostuak sortzeko; eta ekoizleei formazioa eskaintzea proiektuak bideragarriak eta ingurumenarekiko jasangarriak izan daitezten”. Oinarri sendoa ezartzeko hanka askoko ekimena da, beraz, Beterri Km0.

Koldo Huegun Zapirain oilasko ekoizle urusbildarra proiektuko eta Lumagorri elkarteko kide da. Argi du modu honetako egitasmoak nahitaezkoak direla sektorea suspertu nahi bada. “Gipuzkoan lehen sektorea erdi hilda dago ez delako potentziatu, laguntzeko modua ez delako egokia izan. Instalatzeko eta produzitzeko laguntzak eman bai, baina gero lehoietara bota gaituzte eta ezinezkoa zaigu handiekin leihatzea. Bukararaino lotu behar da tokiko produktuen bidea, kontsumitzailearenganaino, Beterri Km0 proiektuak lotu nahi duen bezala”, dio.

Euskal Herrian dagoen kontzientzia politikoa elikadurara eramatea proposatzen du ekoizleak: “Hori bai dela ekintza politikoa, elikadura. Euskal Herrian kontsumitzen dugunetik %5 inguru soilik da bertan ekoitzia, hortxe dago koska. Lanpostuak, elikagaien kalitatea, ingurumenaren zaintza... Guztia dago horri zuzenean lotuta”. ■

bazkari eta 130 afari ematen dira. Urtean 50.000 minutik gora dira”, kalkulatu du eskualdeko teknikariak. Hernaniko eta Usurbilgo haur eskoletako eta Andoaingo Galarde Udal Haur Eskolako jantokietan ere eskaintzen dituzte eskualdeko produktuak otorduetan. Egiaren hitzetan, “helburua da ekoizpena baino kontsumo handiagoa sustatzea, gero hortik lur berriak bilatu eta ekoizle berriei ateak zabaltzeko”.

### **Lurren errolda eta ekoizleen formakuntza**

Behin tokiko produktuen kontsumoak gora eginda –jantoki publikoetako es-

kariarekin jada gertatzen ari dena–, proiektuko kideek jakin badakite egungo eskualdeko ekoizleen eskaintza txiki geldituko dela. Oztupoa baino aukera dela ikusten dute, ordea. “Behemendirekin lurren errolda egiten ari gara –dio Olaizek–, eskualdean libre dauden lur publiko eta pribatuak identifikatzeko eta ekoizle berrien esku jartzeko”. Oraingoz bi hektarea hartu dituzte Astigarragan eta Andoainen eta denera lau lanpostu sortu.

Formazioari garrantzi handia eman diote Beterri Km0 proiektuan. Hainbat saio eskainiko dizkiete eskualdeko ekoizleei –zaharrei zein berriei– hu-

BABESLEA: **BETERRI-BURUNTZA UDALAK**

